

**Ion Andoni del Amo** 'Party & Borroka' liburuaren egilea

# “KULTURA EZ DA APURTZAILE IZATEKO LEHEN BEZAIN TRESNA ERAGINKORRA”

Txosna eta jaialdietan beti musika berbera entzuten dela, oraindik ere 80ko hamarkadan sortutako korronteetatik ari garela edaten, gero eta gehiago direla ingelesez sortzen duten musikariak...

Tabernazulo (fisiko zein digitaletako) tertulietan gero eta ohikoagoak diren hariak dira. Haietatik tiraka jarri da Ion Andoni del Amo. Tesian lehenengo, eta hura laburtuz Txalapartarekin kaleratu duen *Party & Borroka* liburuan ondoren.



**Lander Arretxea Bereziartua**

@larretxea

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

**Gaur egunera etorri aurretik, 60ko hamarkadako Euskal Kantagintza Berria eta RRVa aztertu dituzu. Ezaugarri bertsuak omen dituzte.**

Oso estilo desberdinak dira, baina hiru ezaugarri komun dituzte. Lehenak hartu zuen momentuko abangoardia kontrakulturala, Bob Dylan eta abar, eta punkak ere bere momentuko abangoardia ekarri zuen hona; izaera kontrakulturala zuten bi mugimenduek; eta hirugarren elementua, euskara edo Euskal Herriarekiko konexio kulturala da. Punkaren kasuan hizkuntzaren lotura ez da hain nabarmena, baina hala ere bazegoen euskaltasunarekin lotzeko joera bat. Denborarekin, euskararekiko loturak eta gune alternatibo horiek egin dute beren bidea, baina gutxien garatu dena abangoardia musikalekiko lotura izan da.



**Zuri atentzioa eman zizuna hori da: Europako beste herrialde batzuetan ez bezala, Euskal Herrian urte luzez musika mota berbera entzun izan dela.**

Bai, ikusi nuen 25 urtez musika mota berbera izan dugula gune alternatiboetan, eta gainera, gero eta jende gutxiago hurbiltzen zela bertara. Beste herrialde batzuetan hala ez zela iku-

sita, hori aztertzeke gogoia piztu zitzaidan, eta master amaierako lan gisa garatu nuen. Gero, behin hasita, gehiago garatu dut tesian, eta gero berriro laburtu, liburua egiteko. Nire iritzia aldatu da ibilbide horretan, eta baita errealitatea ere. Azken bost urteetan aldaketa asko izan dira, txosnagunee-tan batik bat.

### Transgresioaren izenean, kulturalki kontserbadoreak izan dira esparru batzuk?

Leire Lopezek oso ongi adierazten du. 20 urtez gauza berak esatea, erritmo berean, ez da transgresiboa. Mezu horiek galdu dute bere unean zuten gaitasun apurtzailea, eta baita politikoa ere, “estribillo” hutsak izateraino. Bitxia da gune eta jaialdi alternatiboetan eman den fijasio hori, beste estilo batzuk eta euren gaitasun eraldatzailea gutxiestekoa.

Bestalde, egia da retromaniarako joera, aspaldiko musikara itzultzekoa, fenomeno unibertsala dela gaur egun. Baina hemen are gehiago gertatu da, retromania horretan instalatuta egon gara. RRVaren inguruan eraiki zen nortasun eta identitate oso bat, eta horregatik indartsu mantendu da. Errepikatu ditugu eskema berberak transgresioaren izenean, eta beste elementu transgresore batzuk sortu direnean, horien kontrako jokabideak garatu ditugu. Mantendu dugu apurtzaile izateko kanon jakin bat: rockeroa, maskulinoa... Askok kosta da horri buelta ematea.

### Horrela ulertzen da, besteak beste, musika elektronikoak Euskal Herrian izan duen bide zail eta berantiarra. Hemendik At-en adibidea aipatzen duzu liburuan.

Hemendik At-en kasua oso adierazgarria da. Beste talde elektroniko batzuei zera aurpergiratzen zaie: hedonistak direla eta eduki gabeak, drogekin lotura dutela, ez dutela aldarrikapenik egiten... Baina Hemendik At euskaraz zen, oso ildo abertzaleko aldarrikapenez josia... Eta hala ere bazterketa hori bazegoen, alde estetikatik zetorrena. Kanon rockero bat eraiki da, bi ildo dituen: hard-rock metaleroa, Berri Txarrak-en estilora, eta bestea, airezko instrumentuduna, Betagarriren estilora. Hortik kanpo zegoena ez da onartua izan. Antolatzaile eta zirkuito alternatibo askotatik egin da boikota, baina baita publikoaren sektore batzuetatik ere. Hemendik At-en kasuan, jende asko zen “hau ez da gure estiloa” oihukatzen zuena.

### Tabernetan edo txosnaguneetan entzuten den musika motaren atak zabaldu direnean ordea, musika komertzialari irerki zaizkio batez ere.



» “Kanon rockero bat eraiki da bi ildo dituen, hard-rock metaleroa, Berri Txarrak-en estilora, eta airezko instrumentuduna, Betagarriren ildoan”

» “Ez dago berez estetika musikal edo kultural bat iraultzailea dena. Antolatzeko modua da batez ere iraultzailea”

» “Gero eta gehiago dira ingelesa erabiltzen duten taldeak: sektore askotan euskara bermatutzat ematen da eta ez da hain modu premiazkoan bizi”

Hori gertatu da, bai. Konturatu direnean gero eta jende gutxiago mugitzen zela, berandu zenez gogoeta kulturala egiteko, modako produktu komertziala erosi dute. Abangoardietatik tira beharrean, logika komertzialetik jo da, jendea erakarri eta esparrua salbatu ahal izateko.

Bai tabernetan eta bai txosnaguneetan. Aldi berean, egia da rap-a eta musika elektronikoa ere tokia izaten hasi direla.

### Pentsatzen dut horrek ekarri duela izaera kontrakulturala galtzen ari ziren espazio horiek, are gehiago urardotzea.

Bai eta ez. Egia da bihurtzen ari zirela komunitate jakin baten esparruak, izaera kultural oso definituarekin, eta hori apurtu da neurri batean. Baina apurketa horretan bi elementu desberdin sartu dira: batetik lortu

da espazio unibertsalagoak bihurtzea, transgresorea izateari utzi zion izaera kultural bat sakrifikatuz. Bestetik, horri esker jende gehiago erlazionatu da esparru alternatibo horiekin. Amu gisa ere balio izan du, beraz.

### Ez da kezkatzekoa abangoardia kulturalak gune horietan lekurik ez izatea?

Ez horrenbeste. Masa kultura homogeneoa zenean, estetikaren eta kulturaren bidetik iraultza egitea oso indartsua eta garrantzitsua zen. Punkak egin zuen, skin mugimenduak... Identitate zapaldu bat politizatuz ere talka handia lortzen zen. Gaur egun aldiz, logika kultural dominantea aldatu da: bultzatzen duena aniztasuna eta pluraltasuna da, eta beraz, orain aldarrikapen eta jarrera horiek ez dute lehengo indar bera. Bizitza edo kontsumo era moduan hartzen ditu sistemak, gustu moduan. Kultura eta estetika tresna moduan ez dira hain iraultzaileak. Ez du esan nahi garrantzitsuak ez direnik, baina apurtzaileak izateko gaitasuna galdu dute, hein handi batean.

Hori horrela bada, gune kontrakultural edo alternatibo horietan eman diren aldaketak desdramatizatu egin behar dira. Egia da hautu inkontzientea izan dela musika komertziala onartzea kutxa betetzeko, baina horrek ez du esan nahi hautu okerra izan denik.

### Ez dago orduan, gaur egun, apurtzaile-tzat jo daitekeen korronterik?

Ez, ez dago berez estetika musikal edo kultural bat iraultzailea dena. Iraultzailea, batez ere, egiteko eta antolatzeko modua da. Nola, eta ez horrenbeste zer. Auzia ez da musika elektronikoa bai ala ez, aldarrikapen mezuak bai ala ez... Auziak izan behar luke zein den antolatzeko.

ko modua, diskografika handiekin erlazioztatzen den edo ez, zein jarrera duten taldeek antolatzaileekin...

Bestetik, eredu kultural nagusiak uniformetasuna bultzatzen zuenean, tribu desberdinak sortuz apurtu zen horrekin. Gaur egun aldiz, aniztasuna eta fragmentazioa bilatzen ditu, bai kulturari, bai beste alorretan. Orain musikak zentzu iraultzailerik badu, komunitate sendoak eraiki eta garatzeko gaitasuna da. Horregatik diot txosnaguneetako aldatetak ez direla hain dramatikoak.

**Feminismoak, espazio alternatiboetan behintzat, lehen ez zuten presentzia eta indarra hartu du. Horren islarik bada musikan? Azertu duzu?**

80ko hamarkadan, nahiz eta punkak queer teoriarekin eta lotura izan eta baliabideak eman genero rolekin apurtzeko, ez zen horrelakorik gertatu. Gure punkiak oso matxiruloak eta heteronormatiboak izan ziren. Doctor Deseo izan daiteke garai hartako salbuespen bat. Emakumerik ez zegoen apenas, Las Vulpes, Belladona eta askoz gehiago ez. Geroztik ere, rock munduan oso eskasa

izan da emakumeen presentzia eszenatokiaren gainean, eta zer esanik ez atzean, antolatzaile eta teknikari moduan. Musika elektronikoan eta rapean hasi dira emakume batzuk indarrez, Las Tea Party, La Basu... Baina gune alternatiboetan urte luzez estetika oso maskulino bat nagusitu da, eta sartu diren neskek askotan estetika horri jarraipena eman behar izan diote. Azken urteetan hasi da hori zaintzen programatzen denean. Batetik, emakumeen taldeak programatuz, eta bestetik estetika eta performance "matxito" horiek egiten dituzten taldeak kanpo utziz.

**Hizkuntzarena da beste gai arantzatsua bat. 80ko hamarkadan ere bazeuden gaztelaniazko talde asko, baina gerora zigortu izan dira ingelesera edo gaztelaniara jotzeko joerak (Lin Ton Taun...). Gaur egun aldiz, asko dira ingelesa erabiltzen hasi diren bertako taldeak, eta joera horrek duen harrera ere aldatu da.**

Bai, 80ko hamarkadan gaztelaniaz aritzen ziren talde asko zeuden. Hasiera batean ez ziren euskal taldeak bezala onartuak izan; "conjuntos modernos"

bezala agertzen ziren *Egin*-en, adibidez. Baina mugimendua oso potentea zen, eta "Martxa eta borroka"tik aurrera egoera aldatu zen, eta onarpen horrek hurrengo belaunaldietan aldatetak bultzatu zituen. 90eko hamarkadan, ordea, euskara izan zen hizkuntza nagusia, eta horren inguruan konpromiso militantea egon zen, harrotasuna ere bai. Ondorioz, ingelesera edo gaztelaniara jotzeko joerak gaizki ikusita zeuden; hor daukagu Lin Ton Taun taldeak jasan zuen boikot kanpaina.

Gaur egun, egia da, gero eta gehiago dira ingelesa erabiltzen duten taldeak. Publikoaren aldetik ere harrera aldatu da. Musikariek estilo kontuak aipatzen dituzte askotan, eta konposatzeko erraztasuna, ingelesa monosilabikoa goa baita. Beste kontu batzuk ere badaude atzean. Alde batetik, nolabaiteko apurketa estetikoak, aurreko hamarkadetan egin den euskarazko rockarekin. Bestetik, beste fenomeno orokor bat ere badago, instituzionalizazioari lotua. Sektore askotan euskara bermatutzat ematen da, eta ez da hain modu pre-miazkoan bizi. ■



## Kalean da ekaineko

# aizu!

- Errekaleor, auzolanaren emaitza
- Sormena elikatzeko, Okela
- Zigor Iturrieta, arin-arin
- 80 urteko isiltasun urratua Burutainen
- Uda AEKn, ez duzu ahaztuko

**Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €**  
[aizu.eus](http://aizu.eus)